

## **Genero indarkeria eta haurren sufrimenduaren gaia azaleratu du HAZIAK ekimenak Oiartzungo haur talde batekin egindako 'Haur Galdua' lanketan**

*Oiartzunen otsailaren 17an eta 18an 7tik 12 urtera arteko 12 haurrekin egindako lanketa hau kulturen arteko testuinguruan kokatzen da eta elkarlan sakonean oinarritua dago. Lanketa honen emaitza oraingoz Latinoamerikara itzuliko da eta beste haur edo/eta heldu talde batek hau ikusi, ulertu eta bere erantzuna emango dio. Hala, lanketa honen emaitza den 'Haur Galdua' bideoa<sup>1</sup> euskaraz sortu bada ere, gaztelerazko azpigituluak<sup>2</sup> dituen beste bertsio bat ere sortu dute.*

Aniztasuna, elkarlana, errespetua, hausnarketa... Hain izan da sakona eta aberatsa HAZIAK<sup>3</sup> egitasmoak egindako lanketa, ez baita erraza bere indar guztia azaltzea eta laburbiltzea.

"Umeekin batera marrazki bizidunak sortzeak zirrara ikaragarria sortu digu denoi. Are gehiago gaia eta lanketa bere osotasunean kontuan hartzen badugu", diote HAZIAK egitasmoko kide diren Nora Barroso eta Nekane Martiarenak. Eurak izan ziren otsaileko asteburuan haurrekin bildu eta lanketa hau aurrera eraman zutenak.

**Guztiak batera eskura zituzten materialekin, (kartoizko kutxak, bonbilak...) 2D animazioak egiteko gai diren kutxa magikoak eraiki zituzten. Denen artean eszenak adostu eta banatu zituzten, pertsonaiak sortu, elkarren artean marraztu... eta ipuinaren animazioa bidez grabatu zuten.**

### **Aniztasuna ardatz duen kulturen arteko proiektu zabal baten barruan kokatua**

'Haur Galdua'-ren ideia VEDI<sup>4</sup>, Ventanas a la Diversidad proiektuko kideekin harremanetan jarri ondoren sortu zen. Nekane Martiarenak harreman honen jatorria azaltzen du: "Guille Maceiras Ventana a la Diversidad proiektuko kidea ezagutu genuen Unesco Etxearen ekitaldi batean. Haien proiektuak gurearekin zerikusia zutela ikusi genuen, eta harremanetan jarri ginen".

<sup>1</sup> <https://vimeo.com/258652357>

<sup>2</sup> <https://vimeo.com/257940601>

<sup>3</sup> <http://www.haziak.eus>

<sup>4</sup> <https://www.ventanaaladiversidad.org/>

Vedi-ko kideak Donostiako Tabakalera eraikinean daude, baina egitasmo anitz dituzte martxan munduan zehar. Horietako bat da “Irudizko mugak” (Fronteras imaginarias)<sup>5</sup>. Helburua da herri bakoitzeko arazo bati ipuin edo istorio baten bidez konponbidea bilatzea. Hau da, **ipuin sendatzaileak** aurkitzea eta horien gaineko **lanketa sendatzailea** egitea. Hala, ahozkoitasunean oinarritutako ipuin bat hartzen da eta haur eta/edo helduen laguntzarekin ipuin hori ulertu eta elkarrekin eraikitako kutxa magiko baten bidez marrazkiak egin eta ipuinari bizia ematen zaio.

Ipuin horiek gizarteko arazo jakin bat agerian uzten dute. Lanketa horrek arazo hori azaleratzen du eta lanketa egiten dutenei gaiaren inguruan euren hausnarketa egiteko aukera ematen die. Oartzunen azaleratu den gaia genero indarkeria izan da eta testuinguru horretan hurrek pairatzen duten sufrimendua.

**Helburua da herri bakoitzeko arazo bati ipuin edo istorio baten bidez konponbidea bilatzea. Hau da, ipuin sendatzaileak aurkitzea eta horien gaineko lanketa sendatzailea egitea.**

### **Yucataneko ahozko istoriotik ‘Haur Galdua’ ipuiner**

Abiapuntua Yucataneko (Mexiko) Hunucma herriko ahozko istorioan dago, ‘La X’tabay’<sup>6</sup>. Hunucmako hurrek ipuinaren marrazki bizidunak sortu zituzten komunitateko pertsona helduekin eta VEDI-ko lagunekin batera. Ipuin horretan alkohola edaten duen haurrari La X’tabay emakumea agertzen zaio. Kondairak dio edaten duten haurrak eramaten dituela La X’tabayk eta hurrek arriskutik aldentzeko duten modu bakarra edateari uztea dela. Ipuin horrek Yucatanen dagoen arazoa (hurrek duten edateko ohitura) agerian uzten du.

HAZIAK proiektuko kideak ahozko tradizioari begira jarri ziren eta Oartzungo ‘Haur Galdua’ ahozko istorioa aurkitu zuten, belaunaldiz-belaunaldi igorria eta Xabier Susperregik Sorginen Liburuan (Oartzungo Udala, 2011) jasoa. Bertan Iturriozko dorretxeko jaunaren istorioa kontatzen da. Bere emaztea jipoitu eta giltzaperatzen zuen dorretxeko jaunak eta egoera hori jasan ezinik bere semeak ihes egiten du dorretxetik.

Ipuin horretan oinarrituta oso lanketa sakona egin zuten HAZIAK-eko kideek haur talde batekin. Lehendabizi ‘La X’tabay’ ipuina ahotsik gabe ikusi zuten. Hor ikusten zutena deskribatu zuten hurrek, ondoren HAZIAK-eko kideek ipuin hori euskaraz azaldu zieten. Horren ostean, ‘Haur Galdua’ ipuina kontatu zieten eta bi ipuinen arteko (‘La X’tabay’ eta ‘Haur Galdua’) antzekotasunei eta desberdintasunei buruz hitz egin zuten. Bi ipuinetan daude haur galduak, baina arazoa desberdina da, batean edaria da arazoa, bestean genero indarkeria. Azkenik elkarlanari bide eman

<sup>5</sup> [https://issuu.com/wolfrabit/docs/fronteras\\_imaginarias](https://issuu.com/wolfrabit/docs/fronteras_imaginarias)

<sup>6</sup> <https://vimeo.com/137556932>

zitzaion. Guztiek batera eskura zituzten materialekin, (kartoizko kutxak, bonbilak...) 2D animazioak egiteko gai diren kutxa magikoak eraiki zituzten. Denen artean eszenak adostu eta banatu zituzten, pertsonaiak sortu, elkarren artean marraztu... eta ipuinaren animazioa bidez grabatu zuten.

**HAZIAK proiektuko kideek Oiartzungo 'Haur Galdua' ahozko istorioa aurkitu zuten, belaunaldiz-belaunaldi igorria eta Xabier Susperregik Sorginen Liburuan jasoa. Bertan Iturriotzko dorretxeko jaunaren istorioa kontatzen da. Bere emaztea jipoitu eta giltzaperatzen zuen dorretxeko jaunak eta egoera hori jasan ezinik bere semeak ihes egiten du dorretxetik.**

### **Elkarlanetik eta sormenetik egin den botere harremanen lanketa**

HAZIAk egitasmoak gizarteko partaideen arteko elkarbizitzan harreman desorekatuak eta botere harremanak iraultzea du helburu<sup>7</sup>. Hala, 'Haur Galdua'ren lanketa bete-betean lerrokatzen da helburu horrekin. Gainera, Vedi-k aurrera eramaten dituen egitasmo desberdinek bezala, arteari, norberaren sormenari eta elkarlanari lehen mailako garrantzia ematen die HAZIAK egitasmoak, harreman desorekatuen aurrean abiatu nahi diren prozesu iraultzaile horiek abiarazteko elementu gisa ulertzen baititu.

"Asteburu horretan, komunitatean egin genuen lanketa itzela izan zen", dio Nora Barrosok. "Lanketa horretan bidea izan zen helburua, rolak aldatu ziren, ez zen egon ongi edo gaizki marrazten zuenik, sortutako guztia zen baliagarri, prozesuaren parte onartua eta batek esan nahi zuena besteei komunikatzeko prozesu etengabea izan zen". Gainera, Norak prozesu honetan arteak duen papera aldarrikatzen du: "Artea da sentipena, aniztasuna... eta aniztasun hori ulertzeko gai bagara, beste modu batean ikusiko dugu ingurua".

Orain Vedi-k Oiartzungo haurrek sortutako ipuina munduko beste txoko batzuetara eramango du: Mexiko eta Guatemalako mugen artean dagoen Tabasko herrira, baita Panamako Darien Oihanera eta El Salvadorrera. Bertan beste sorkuntza bat egingo dute, bakoitzak bere herrialdeko errealitatera egokitua, baina guztiek elkarbizitzan eta errespetuan oinarritutako mundu hobea lortzeko itxaropenarekin.

### **Informazio osagarria:**

---

<sup>7</sup> <http://www.haziak.eus/haziak/zer-da>



'Haur Galdua' bideoa: <https://vimeo.com/258652357>

'Haur Galdua' bideoa gaztelerazko azpituluekin: <https://vimeo.com/257940601>

'Haur Galdua' ipuinaren making-of: <https://vimeo.com/260431119>

**Harremanetarako bidea:**

Tlf: 699 844 994

E-posta: [kaixo@haziak.eus](mailto:kaixo@haziak.eus)